

HBk alderdiak salatu ditu ez dutelako betearazi presoek buruzko ebazpena

Gasteizko Legebiltzarrak gaur urtebete onartu zuen presoak gerturatzeko erabakia

Urriko ebazpena onartu zuenetik, eta egitasmo hura egitasmo besterik ez da oraindik. HBk uste du hori horrela dela alderdiek ez dutelako borondaterik plan hura betetzeko, eta hori guztia gogoratzeko kontzentrazioa egingo du gaur eguerdian Legebiltzarraren aurrean.

Erredakzioa / Gasteiz

PRESOEN giza eskubideak bermatzea zuen helburutzak Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearen ebazpenak. Besteak beste, erabaki zuen presoek etxetik gertuko kartzeletan bete behar dituztela zigorrak; zigorraren hiru laurdenak bete dituztenei baldintzapeko askatasuna dagokiela; gaixotasun sendaezina dituzten presoek aske behar dutela, Legeak hala agintzen duelako; eta ebazpena betetzen hasteko, uharteetan zeuden hogeita hamar presoak lehenbailehen ekartzeko dei egin zion Madrilgo Gobernuari.

Ebazpen horiek guztiak ahalbidetzeko lantaldea eratu zuten EAJk, EAK, IUk, UAk eta HBk, eta puntu bakoitza zehaztu egin zuten. Gainera, gerturatzeko plan bat egin zuten eta Madril aurkeztu zioten, nahiz eta Jaime Mayor Oreja ministroak ez zuen aintzat hartu. Erabaki horiek euskal gizartearen gehiengoa alde dutela nabarmendu du HBk, eta bete ez izanaren errua alderdiei egotzi die. «Lantaldeko alderdiek amore eman diote Madrilgo Barne Ministerioari, eta haren politika errepresiboarekin bat egin dute. HBk salatu nahi du Barne Minis-



Ituneko alderdietako ordezkariak bileratzeko bat egin zuten atzo Legebiltzarrean, datorren astean noiz bildu zehazteko. XOUSE SIMAL

terioaren jukutria Legebiltzarreko ordezkariak beste foro batekin ordezkatu nahi duelako», adierazi du koalizio abertzaleak prentsa ohar baten bidez.

Alderdiak datorren astean bilduko dira • HBk kontzentrazioa egingo du gaur eguerdian Legebiltzarraren aurrean, eta alderdien jokabidea salatuko du. Senideak presoek aldeko elkarteak ere alderdien jokabidea kritikatu du. «Gaur urte bat betetzen da Gasteizko Giza Eskubideen Batzordeak presoek hurbilketa plana onartu zuela. Urte honetan erabaki hori aurrera eraman eta aplikatzeko ezer gutxi egin dute batzordea osatzen duten alderdi politikoei; aitzitik, aitzakia poli-

tikoei, presoek auzia batzordetik atera eta beste mahai batera eramanez», jakinarazi du elkarteak.

Alderdi politikoei, HB izan ezik, datorren astean bilduko dira kartzela politika hitzartzen saiatzeko. Jose Antonio Rubalkaba Giza Eskubideen Batzordeko lehendakariak atzo bildu zituen alderdiak, eta datorren astean lehen lan bilera egiteko geratu ziren. Bilera egitea Ajuria Eneko Mahaiak egin zuen azken bileran irailaren 16an erabaki zuten. Alderdiek ikuspuntu bakar bat lortuko balute, Madrilgo Barne Ministerioarekin negoziatuko lukete akordioa.

Akordioa «hiru edo lau bileratan» egitea espero du Rubalka-

bak. Tarte honetan Legebiltzarreko lantaldea baztertu egingo dute eta ez da bilduko. Lantalde horretan HBk hartzen zuen parte, eta UA, PP eta PSE-EE kanpoan geratu ziren. EAJk, EAK eta IUk, hala ere, nahi dute lantaldeak egin zuen lana guztiek ezagutzeko, lanerako baliagarria dela uste baitute. PPK, ordea, hasieratik hasiera nahi du, ez baitu Legebiltzarreko lantaldea eza gutzen.

Datorren asteko bileran alderdien arteko konpromezua ea posible den astertuko dute, «diskrezioren» egin nahi duten bilkuran. «Lehen bilera honen ondoren ikusiko dugu aurrera egitea posible den», besterik ez zuen esan atzo Rubalkabak. X

UPNk eta PSNk ez dute aintzat hartuko HBk Irlandari buruzko lan taldea eratzeke egin zien proposamena

LABek txalotu egin du ekimena, eta CDNk eta Nafarroako IUk heldu den astean aztertuko dute

Erredakzioa / Iruñea

HERRI BATASUNAK ETAREN indarkeria gaitzesten ez duen bitartean, UPN eta PSN ez dira talde abertzaleko ordezkariekin bilduko Irlandako bake prozesua aztertzeko. Miguel Sanz Nafarroako gobernuburuak RNE irrati katean esan zuenez, gaitzespena ezinbesteko baldintza da HBkoekin hitz egiteko. «HB indarkeria terrorista gaitzetsi eta estrategia hori alde batera utziz gero, orduan bai, orduan biolentziaren amaieraz hitz egiteko prest egongo ginateke, baina hori gertatzen ez den bitartean ez daukagu zertaz hitz egin», azaldu zuen UPNko agintariak. Blanca Garcia PSNko gestorako lehendakaria Sanz bai-

no gogorragoa izan zen, «gustu txarreko txantxatza» hartu baitzuen HBren elkarrizketa eskaintza. Buruzagi sozialistaren iritziz, Herri Batasunak biziaren eta askatasunaren aurkako erasoak gaitzesten ez dituen bitartean ez dauka zentzurik inolako elkarrizketa eskaintzak egiteak. CDNko zuzendaritzak heldu den astelehenean aztertuko du HBren deialdia.

Victor Maeztu alderdiko idazkari nagusiaren ustez, interesgarria da HBk Hego Euskal Herriko agente politiko eta sozialei elkarrizketarako deia egin izana. Hala ere, ezbaian jarri zuen gonbitaren zintzotasuna. Nafarroako Izquierda Unidak ere datorren astean ezbaidatuko du HBren

eskaintza, baina dagoeneko hura onartzeko prest agertu da Jon Erro parlamentarioaren bidez. Erroren azaldu duenaren arabera, «IU ez daukagu erreparorik edozein indar politikorekin hitz egiteko, elkarrizketazaleak gara eta. Gainera, Iruñeko Itunak gai hori aztertuko duen joan zen astean, eta ez zuen ezer erabaki. Ez zen akordiorik lortu, baina IUk alderdi politikoei guztiekin hitz egiteko konpromezua du».

LAB sindikatuak gogo onez jaso du Irlandako bake prozesua aztertuko eta bertatik Euskal Herrirako ondorioak ateratzeko proposamena. LABeko idazkariak, Rafa Diezek, txalotu egin du Herri Batasunaren ekimena, eta lan taldean parte

hartzeko asmoa agertu du, «konponbiderako ateak irekitzeko ordua baita».

Floren Aioz Herri Batasunako bozeramaileak hizpide izan zuen atzo UPNren eta PSNren erantzuna. Esan zuenez, Miguel Sanz eta Blanca Garcia ez dira bakerako politikariak: «Proposamena jaso orduko ezetz erantzun dute, ez dakit zergatik: proposamena ez dutelako leitu, edo ohituraz jokatzen dutelako. Bistan da ez direla konponbideak bilatzeko gauza. Aurkaria iraindu baino ez dakite egiten». Hala ere, esperantza ez duela galdu aipatu zuen HBko bozeramaileak, UPNren eta PSNren baitan Sanz eta Garcia baino jende «arrazoizkoagoa» egon daitekeela uste baitu. X

Hogeita bost lege proiektu egin nahi ditu Jaurilaritzak urte batean

Ibarretxek uste du Legebiltzarrak astirik izango duela guztiak ezbaidatu eta onartzeko

Felix Iriarte. / Gasteiz

LEGEINTZALDIAREN azken urtea emankorra izatea nahi du Jaurilaritzak. Hiru urtetan 31 Lege egin ditu eta Gasteizko Legebiltzarrera igorri ditu han ezbaidatzeko, baina legeintzaldi bukatzeko falta den urtean beste hogeita bost bidaliko dituela iragarri du Juan Jose Ibarretxe lehendakariordeak.

Legebiltzarrak, hogeita hamar horietatik, hogeita bost onartu ditu, eta besteak oraindik ezbaidatuta daude. Gobernuak iragarri dituenak bidaliko balitu, guztira ia berrogei Lege proiektu izango lirake ezbaidarako. Iragarritako guztiak, hala ere, ez dira iritsiko, Jaurilaritzak ez baitu esandakoa beteko. Ibarretxek, berak, aitortu du Legebiltzarrean azaldutakoa «asmoa» besterik ez dela, eta ez duela nahitaz bete behar. Gainera, hainbat Lege, Udako Legea edo Banku Publikoarena, esaterako, hitzartzea zaila dirudi.

«Udal Legearen arazoa Udal finantzaketa da, eta hor ez gaude ados. Gainera, alderdi bakoitzaren barnean ikuspuntu ezberdinak azaltzen dira hemengo edo hango alkatetza izan. Hori hitzartuko bagenu, baliabideekin batera, hamar egunetan egingo genuke Lege proiektua», esan zuen lehendakariordeak. Banku Publikoarekin beste horrenbeste gertatzen da, or, dagoela adostasun nahikorik, alegia. Banku Publikoa eratzeke Lege proiektua aurreko legeintzaldiaren asmoa zen, eta azkenean erretiratu egin zuen Gobernuak.

IUK eta PPK sinesgarritasuna kendu zioten Ibarretxek aurkeztu zuen egutegiari. «Urtero hemen aurkeztu duzun egitasmoa bete gabe joaten da hurrengo urtera. Horregatik uste dut orain gauza bera gertatuko dela eta zure egutegia paper errean izango dela», esan zuen Javier Madrazo IUko kideak.

Carmelo Barrio PPKoak ere ez zion bestelako garrantziarik eman Ibarretxeren asmoari. Legebiltzarrak proiektu guztiak ezbaidatu eta onartzeko astirik ez duela izango adierazi zuen, eta kexu agertu zen legeintzaldiaren azken urtean izango den «gainsosiarrengatik». «Oreka gorde beharko genuke. Ez da posible hiru urtean hogeita bost Lege eta azkenengoak beste hainbeste. Proiektu gainsosia datorrigu, eta ez dugu astirik izango guztiak aztertzeko», esan zuen. X